



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Gizarte Kontseilua - Consejo Social

## **EHUren GIZARTE KONTSEILUAREN OSOKO BILKURA**

### **EHUN ETA HOGEITA LAUGARREN BILKURA, BI MILA ETA ZAZPIKO OTSAILAREN 14AN EGINA**

IKASKETA OSAGARRIAK: "PSIKOTERAPIA LABURRAK" / "MUNDUKO ERREALITATEARI BURUZKO IKASKETAK: EKIALDE ERTAINA". PREZIOAK.

"1.- Onartzea, aurkeztutako espedienteei jarraiki, ondoko Ikasketa Osagarrietako ikastaroen matrikula-prezioak:

- **Psikoterapia laburrak**, 150,00 € / kreditua (2 kreditu);
- **Munduko errealitateari buruzko ikasketak: Ekialde Ertaina, analisi globala**, 25,00 €/kreditua (4,5 kreditu).

2.-Hurrengo salbuespenak finkatzea:

- Ekintza terroristen biktimei tasak eta prezio publikoak ordaintzetik salbuestea, bai eta haien ezkontideei eta seme-alabei ere; kategoria bereziko familia ugariko senideei, eta EHUko Estatutuetako 96. artikuluan ezarritakoaren arabera, %33ko edo gehiagoko minusbalotasuna duten ikasleei ere.
- Kategoria orokorreko familia ugariko senideei prezio publikoen %50a ordaintzetik salbuestea.

3.- 10 kreditu baino gutxiagoko programazioa duten Ikasketa Osagarrietako ikastaroak Doktorego Azpibatzerdeak onartu ondoren emango dira. Doktorego Azpibatzerdeak baimendutako ikasketen gaineko txosten bat igorriko dio hiru hilez behin, ikasketen prezioak baliozkotzeko eta ezingo dira 200,00 € /kreditua baino garestiagoak izan.

4.- Gainerako ikasketei buruzko txostenak aurrerapen nahikoarekin bidaliko zaizkio Gizarte Kontseiluari prezioak onar ditzan, haiek ematen hasi baino lehenago.

5.- Gradu eta Graduondoko Ikasketen Errektoretzaordeak Unibertsitateko Sail, Ikastegi eta Institutu orori emango die proposamen honen berri."